

Sanignazioak • Algorta



IÑIGO AZKONA

Igor Elortzak beste hainbat bertsolariren laguntzaz saioa eskainiko du gaur.

BETI JAİETAN

Algortako sanignazioetan ez ezik, udalerriko jai guztietarako ere bertso saioak prestatzen dituzte Bertsolari Eskolak.

aditua, eta berak aukeratuko ditu bertso paper zahar batzuk, Kasino plazan bildutako jende guztiarekin batera kantatzeko. Horrezaz gainera, bertso paperi buruzko azalpenak ere emango ditu.

Bertso ekitaldi guztiak Jaietan Bertsoz izeneko programaren barruan prestatu ditu Algortako Bertsolari Eskolak. Izan ere, hitzarmena sinatu dute Udalarekin programa horren bidez herriko ia auzo guztietako jaietan bertso saioak antolatu ahal izateko.

Urte osorako agenda auzoen ezaugarrien arabera

Urte osorako agenda prestatu dute algortakoek, auzo bakoitzeko ezaugarrien arabera egokituta. «Esperientzia polita izan da», Joseba Santxoren azalpenetan. Izan ere, aurten bertso saioak izan dira Areeta eta Neguri bezalako auzoko jaietan, eta hori «oso pauso positibotzat» jotzen dute Algortako Bertsolari Eskolatik.

Horrez gain, aurten Bertsozalearen Urtea izendatu dute Uribe Kostan; hori dela eta, urte osoan egiten dituzten ekitaldietan eskualdeko bertso zaleen aldeko keinuak egingo dituzte. Algortako Bertsolari Eskola 1980an jaio zen, eta iaz 20 urte bete zituen. Gora behera handiak izan dituen arren, azken hamaika urteotan bertso zaleen zerrenda luze bat igaro da Algortako eskolatik.

Kasino plaza, bertsoen txokoa

Bertsolari ezagunetarik askok bisitatuko dute herria San Ignazioko jaietan zehar

Veronica Muñoz | ALGORTA

Jailetako egun guztietan bertso ekitaldi bat izango dugu aurten, Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Azken urteotan joera hori izan du eskolak; herriko jai guztietan, auzoko jaietan ere,

bertsozale guztientzako txokoa prestatu dute Bertso Eskolak. Algortako jaietan, ohikoa denez, Algortako Kasino plaza aukeratu dute, bertso zale guztien topagune bihurtzeko. Ekitaldi guztiak eguerdian izango dira, 13:00etatik aurrera.


Hiru bertso saio izango dira Sanignazioetan. Saio bakoitzean lau bertsolari arituko dira, denak goi mailakoak gainera. Saio guztietarako gaijartzaileak, berriz, bertokoak izango dira, Algortako Bertsolari Eskolak: «Herria ederto ezagutzen dutenez, etortzen diren bertsolariei emanaldi polita egiteko lana erraztuko diete bertoko gaijartzaileek», dio Joseba Santxok.

Gaur izango da lehenengo bertso saioa, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Jexus Mari

Irazu eta Andoni Egaña bertsolarien eskutik. Bihar izango dira Fredi eta Xabi Paia anaiak, Arkaitz Estiballes eta Igor Elortza, eta jailetako azken egunerako azken saioa prestatu dute, Unai Iturriaga, Oihane Enbeita, Aritz Lopategi eta Jon Maia bertsolarien parte-hartzearekin.

Berritasuna, bertso paperak


Bertso paper emanaldi prestatu du Algortako Bertsolari Eskolak astelehenako, eta hori berria izango da. Josu Landeta getxotarra bertso zaharretan da



Arasa

Sukalde eta Bainugelarako altzarietan espezialistak

Sarrikobaso, 44 - ALGORTA - 94 430 11 91




aldai

TAPIZERIA

DEKORAZIOA

Basagoiti etorbidea, 32
Telefonoa: 94 460 90 31
48990 ALGORTA


TAILERRA:
SALSIDU etorbidea, 35
Telefonoa: 94 430 33 68



ARGAZKI DENDA
ESTUDIOKO ARGAZKIAK

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK

Kasune, 23 - Tel.: 94 430 45 00 - 48990 ALGORTA



BEROGAILU ETA
ITURGINTZA
EZARKETAK

Jaiekin!!

HIRURAK

Sarrikobaso, 15
Tel.: 94 430 53 46
ALGORTA

GORRONDATXE
HERRIKO
TABERNA

Giroa eta jaia

Bidebarri 2. B
94 430 29 62



JAIK BAI
BORROKA ERE BAI
Preso, errefuxiatu eta deportatuen OMENEZ

EUSKAL HERRIA
ASKATU

ZERBITZU TEKNIKOA

Lacofris, s.l.



SERVITEC

- BERTARATZEA EZ DUGU KOBATZEN
- MARKA GUZTIAK
- 25 URTE ZURE ZERBITZURA
- 24 ORDUTAN BERTAN GAUDE
- 4 HILABETEKO BERMEA
- LARRIALDI BEREZIA 24 ORDUTAN

944 305 200
Kasune, 18 - ALGORTA

Zure aisialdirako gida

www.Egunkaria.com/agenda

T

SARRIA

HILETA ZERBITZUAK

TANATORIOA

Algortako etorbidea, 69.
ALGORTA